

Paula Kasares

IRAKASLEA

Hedabidegabekeriak

LEHEN BIDEGABEKERIA: ia zazpi urte joan dira Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuela. Euskal Herriko euskaltzaleon bihotz-buruak inarrosi zituen bidegabekeria horretan auzipetuak egunotan aritu dira epaitzen.

2. HEDABIDEGABEKERIA: ia hogeita bi urte Iruñerrian euskarazko uhinak zabaltzen eta euskaldunon bihotz-belarriak lotzen diharduen Euskal Herria Irratia lizentzia eskuratzeko lehiaketa publikoetatik nahita baztertua izan da. Auzia epaitegietara eramanda, duela bi aste eman dute jakitera lizentzia banaketa zikin hura baliogabetu duen epaia.

3. HEDABIDEGABEKERIA: diru laguntzak eskasak eta berantak izan dira eta Nafarroako euskarazko hedabideek prekariedade gorria dute bizilege. Orain urtebete Ttipi-ttapa Telebistak, Bortziritarako eta Malerrekarako euskarazko tokiko telebistak, itxi behar izan zuen. Bitartean, Nafarroako erdarazko bertze telebistek milioi bana euro jaso izan dute kontu publikoetatik. Baina nork erran behar zigun makurrena oraindik etortzeko zegoela.

4. HEDABIDEGABEKERIA: diru laguntza publikoa hitz emanda bazegoen ere, krisi ekonomikoak ematen duen aitzakia ederra



JOSU SANTESTEBAN

baliaturik, azkenean, 2009an Euskarabideak euro xentimorik gabe utzi ditu Nafarroako euskarazko hedabideak (Euskal Herria, Xorroxin, Karrape, Belexe, Esan Erran eta Aralar irratiak; Xaloe telebista; eta *Ttipi-ttapa*, *Mailope*, *Pulunpe* eta *Guaixe* aldizkariak, besteak beste). Euskararen Foru Legeak indarrean daramatzen 23 urteetan behin ere ez da halakorik gertatu. *Hedabidegabekeria* ez ezik, *Euskarabidegabekeria* ere bada hau.

5. HEDABIDEGABEKERIA: Nafarroan itzaltze analogikoak eskaintza digital publikotik kanpo utzi du ETB. Sanzek hasieran errespetu instituzionala aipatu zuen; gero, arazo teknikoak aitzakiatzat hartu; orain, finantzamendu ekonomikoa du arazo. Kontua da euskarazko telebistarik gabe geratzeko bidean gaude. Bidegabekeria hau zuzentze aldera *Mugarik gabeko telebista* kanpaina paratu dute abian. Milioi erdi sinadura behar dira ekimen legegile herritarrak bere eskaera Espainiako Kongresura eramateko

lea— hizkuntza bera duten erkidegoen arteko koordinaziorik eza konpondu eta telebistak ikustea ahalbide dezala. Hala biz. ■

« Euskarazko telebistarik gabe geratzear gaude. Bidegabekeria hau zuzentzeko Mugarik gabeko telebista kanpaina abian da. Milioi erdi sinadura behar da ekimen legegile herritarrak eskaera Espainiako Kongresura eramateko »

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Izenak eta hitzak nondik nora sortzen diren eta daramatzagun, beti iruditu zait gai deigarria.

Adibidez, pertsona izenen kasuan, Hegoaldean, nola erabaki behar izaten duen Euskaltzaindiak Joar bat edo Amets bat neska ala mutila (soilik!) izango den. Hitzen kasuan berriz, azkenaldian gehienak gailu teknologikoen bidez heltzen zaizkigu; izan DVD, Airbag, Ipod edo Software bezalakoak; baita “dei galduak” eurak ere, egungo zentzu ezagunean segapotoek (!) ekarri dizkigutenak. Baina ederra-

Kilokotxo

goak dira, nabarmen, Andu Lertxundiri “lurmendu” hitzaz edo “ojalietan egon” esamoldeaz irakurriak; edo, berrikiago, Piter

Ansorenak “txutxupe” hitzaz azaldutakoak.

Bada, nago gure txikia hitz batez erditu berri ote den, hiru urte besterik ez dituela. Txoko honetan uzten dizuet opari: hitza “kilokotxo” da eta “maite zaitu eta maita nazazu” esan nahi du aldi berean; elkarrenganako maitasun aldarri galanta. Berez Porrotzen “baina nik mimotxoak behar ditut, Pirritxi!” leunaren parekoa, baina laburretik. Hitz itzela. Kilokotxo. ■